Katoliko-Bizitza

AITA SANTUA'REN IDAZKI OROKOŘA (ENTZIKLIKA). — Ila onen 18'n Batikano'ko iřatizkin bidez, sei izkuntzetan iragaři eben XI'n Pi agurgařiaren Idazki Orokoř bařia. "Karitate Christi Compulsi" itzakaz asten dan idazki onetan, gauř egunean gizarteak dituan gaitz eta galbideak argiro ta zeatz azaltzen dira, baita, osabide egokiak izentau be. Idazki onen gorąlben andiak, katoliko ez diran izpařingiak be egin dituez, eta lotsagařia da baña, katolikotzat dagozan askok baño, gařantzi andiagoa emon dautse. Bat aitatzeařen bakařik, "Times" izpařingi ospetsuak, Idazki onen goralben andiak egin ditu. Aita Santua'k miloika menpeko lurbira gustian eukiaz gañera, menpeko izan ez ařen, bere itza, itzal andiz entzuten daben, miloika lagun dituala esanaz. Eta onetan, bakařa dala diño. Euskeldunen artean. Bere irakatsi goitařak zabaltzeko, pozik itzez-itz euskeraldukо geunke, baña, ori idazki baten ezin dogun ezkero, Ila onen 19'n "L'Osservatore Romano,,'n argitaldu eben lateraz eta italerazkoa auřean dodala, laburpentxo bat egiten alegindukо naz.

KRISTO'REN MAITASUNAK BULTZATUTA.—Gizartean zabaldu zan uřitasunari esi bat ipinteko asmoz, katoliko gustiei eta bařa biotzdun gustiei be, "Nova Impendet" idazki bidez, igaro dan Uřila'n dei egin eutsen, maitasun eta soroskian gustiok bat egiteko. Eta biotz eta esku zabalez gustiak erantzun eutsela diño. Baña zoritxařa auřera doa, ia toki geyenetan lanbakoak ugaritu egin dira, eta alderdi naspiltzaleak eukerakotzat artzen dabe euren zabalkunde galgařia egiteko, eta naspila ta triskantza luřegaz yabetuteko galbide andiagoan aurkitzen da. Orixe dala-ta bařiro be Kristo'ren maitatasunak bultz-eginda, gu tioi dei egiten dausku gaitz onei eta zematzen gaituen txařagoei eutsiteko alkartuta yokatu daigun.

ZORITXAR BARDINGABEA TA BERE SUSTAŘA.—Obenaren ondorengo lez, ludian izan diran gaitz gustiei begiratuta, uriolea ezkero gauř añako zoritxar ain sakon eta zabala, gogota gorputzeko ondasunetan batera aurkitzen, eřez ez yaku izango. Orain artekoak an emen izaten ziran oingo zoritxařa alde gustietakoa da. Gitxi asko lateři, eři ta sendi gustiei ikutzen dautso, eta zoritxar onetan eřu andia izan daben, neuřibako aberatz gitxi batsuk, beste askogaz batean zoritxar onen azpian yausi dira.

Eta zoritxar onegaz tamalez beterik, gizosteatzaz eřukituta, gaitz onein sustařa beste gusien ituři dan txindi zalekeria dala diño. Eta ortik beste gustiak. Diru zalekeritik sortzen da, artu-emon gustiak igartuten dituan usterik eza, zalekeri ořetatik, bekaitza, besteren ona norbere txarzat artzera goroazana, ortik norberekeri kaltegařia, iñoen eskubidean ostikopetutera garaitzana. Ortik ondasunak neuři barik gitxi batsuen eskuetan pilatu ta salerosteak eurak nai dituan eran erabiltea, eřien kalte izugařiaz "Cuadragesimo Anno" zaldu eben lez.

ABERTZALEKERI TA YAINKOBAGEKERIA.—Abertzaletasun zuzena, kistař maitasun zuzenak, txartzat ez emon ezeze, arautuaz deun eta gurendu egiten dau, baña abertzaletasunak norberekeriz, lařegira yoten dabenean, "abertzalekeri" biurtuta eřien artu-emonetan, sartzen danean, gizonen artean iñondik ontzat emon ezin leikena abeřtzalekeri izenean, egin ezkero, on eta txalogaři etsiten da. Eta ortik Aita baten menpeko amaitasun ordez, gustien ondatzen dituan gořotoa zabaltzen da. Eři bizitzan egi-lenak, zapaldu, eskubide gustiak ondatu, eta Yaungoikoa'ganako ziñeste eta bere legea zintso betetea, auřerapen oñaři izan ařen lokatuta gelditzen dira.

Ondasun uřitasuna ta oitura naspila ointzat artuta, gizartearen arerio diran, "komunista" ala beste edozein izendunak—eta auxe da gaurko gautzik bildurgařiena—, ausankeri andiz, goi eta beko lege gustien lokařiak uřatzen alegintzen dira; ixil eta agirian, buřukarik gogořena erlejiño ta Yaungoiko berberaren aurka egiten dabe, ziñesteen azteřeneraño, giza-biotzetik eta tatez be umeenetatik kentzen aleginduaz. Oin arte Yaungoikoa ukatzen asartzen ziranak gitxi ziran, eta agirian gitxiago, baña orain, zabalkunde gaizto ori, ikastola, antzoki, zine, radio, gramofono, izpařingi ta izkuntza gustietan iraŕntako idaztiño bidez egiten dabe. Apaltasun eta txirotasun gařia dan kurutze deuna indarkeriaren lagun lez aurkezten dabe, eta olantxe Yaungoikoa'ren aurkako guda, egunoroko ogia, egoki dan lan-saria, eta ain bidezkoa dan aukera geyagoko bizikera lortuteko alegiñakaz alkartuten ditue. Gurarririk legezkoenak eta girña aberekoyenak, eurena auřera eroateko darabilez, Yaungoikoa'ren aurkako gořototik, bake ta z...iona...en ordez ondamendia datořela oartu barik.

YAUNGOIKOA'REN ALDEZ ALA YAUNGOIKOA'REN AURKA.—Eta guda galgaři au biztuteko ixileko bazkunak Yaungoiko ta Eleiza'ren arerio amořatuak alegintzen dira, gustia ondatu leiken gudaroste onek, ziñeskerearen azteřeneraño kentzeko alegintzen da. Baña alpeřik. Gaiztokitař indar gustiak Eleiza ez dabe garaituko, eta Yaungoikoak Bere arnasaz, ezereztu daikez egunen baten Yaungoiko biziaren eskuetan yausiko diran eřukařiak. Eta azkenengo garaitza onen ezaugaři asko lurbira zabalean agertzen dira, Katoliko Ekintzak egiten dituen lanetan eta gasteri...dak edozein neke igaroteko gertu nai non ikusteak agertzen dabenez. Alan da be, ainbeste gaiztakerita obeři eta asmo gaiztoen irala-ta bere samintasuna agertu ondoren, gizadi eta Yaungoikoa'ren etsai onei esi bat ipinteko gustioi dei egiten dausku; gauř ez dago beste aukerarik; ala Yaungoikoa'ren aldez ala Yaungoikoa're aurka; auzi au zelan ebatzi etorkizuna alangoxea izango da-ta; eta ori politikan; ogasun-gayetan, oitura, yakidi ta ertietan, sendian eta gizartean, Sorkalde ta Sarkaldean, gustia ebatziko dabena auzi au izango da. Gustiok ba,biotz bat eta gogo bategaz arerio onen aurka yaiki beař gara. Norberkeriak alde batera itxita, ořetan lenen katolikotařak izan bear gara, eta gero Yaungoikoa'gan ziñesten daben gustiak, gustiok zematzen gaituen galbide au uřintzeko.

GIZONAREN ALEGIÑAK ETA GOIKO LAGUNTZA.—Ořetarako gure eskuetan daukoguzan bide gustiak erabili bear doguz. Onetan XIII'n Lon'en oñatzai yařaituaz, "Quadragesimo Anno" idazkian ogasunen banakuntza egokiaren aldez sendoro yokatu, ta girarteari bakea ta osasuna ekarteko bideak, azaldu zituala diño. Yaungoikoa'k ba, gizonaren biotzean bizitz oneri dagokion zorion egařia be ipiñi eban ezkero, Kristiñautasunak, gizadiaren yakintza ta auřerapenerako egite izan diran neuřizko alegiñak beti aintzat artu ta yařaikatu ditu. Baña, erlejiñoaren kaltezko gořoto onen aurka, gizonaren alegiñak naiko ez diralako, goiko laguntza beařeko da eta ori otoi eta laztasunez lortu bear da.

AITA SANTUAK ESKATZEN DAUSKUNA.—Benenez labur, eta Yaungoikoa'ren menpeko garealako, otoya beařekoa dala diñosku, eta Yauna'ren abintzaz, apal, ustetsu ta eten barik egin ezkero, goi laguntza jaristeko biderik onena. Otoyak gure ziñestea biztu, ta goiko ondasunei begira ipinten gaitu, eta ori dirukoikeria ito ta ludi zaletasuna neuřira ekarteko aukerakoa da, eta bakea lortuteko bide bakařa. Lateři gustietan otoi egiten daben gizonak, naspilzale, ezin deitekez izan, eta abeřia Yaungoiko egiten dabenen, indarkerizko abeřtzalekeriari indařik ez dautso emongo. Ořez gañera laztasuna beařeko da. Yesukristo lenen orixe irakatsi eban. Zoritxar andietan beti Eleizak laztasunera yo d...t edestiak irakasten dauskunez. Ori gaurko gizon askok antxiñako gauzatzat artzen dabe, baña obenen zořa ordaintzeko, ta gauzak bere tokian ipinteko beste biderik ez dago, girña txařak sustařetik mostuten ditu, eta Yaungoiko-legea'ren gurentasuna, eta bere kaltez utsak ordaindu beařa autortuaz, gauzak bere tokian ipintera bultz-egiten dausku. Ori barik, gizonen batzařak, itunbenak, eta agintarien alegin gustiak bake iraunkořik lortuteko gai ez dira izango, goiko legeak aintzat artu barik, bakerik ezin leike izan eta. Zoritxařok zuzentzeko ba, otoi eta laztasuna nai ta ezkoak dira. Eta batez be, oin Yesus'en Biotza'ren eguna ur dagola-ta gustioi dei egiten dausku, berariz; otoi eta laztasuna egin daigun, txiro ta lanbakoak euren zoritxařa laztasuntzat artuta, eta enparuak, yolas onetatik be uřindu ta auřeratzen danaz, beartsuei lagunduta, Yaungoikoa'ren eřukia geuregantzeko bidea orixe da-ta

Auxe da, zelanbait laburtuta, Doipuruak Bere Idazki bikañean diñoskuna, Menpetasunez artu, zintsoro bete, eta irakatsi edeřok maitasunez zabaltzen alegindu gaitezan.

MITARGA.

AZALPENAK

Araudijetzaz

Lauaxeta

Oxin onetan uraska asko dira. ¿Bakerik ikusiko dogu? Bakotxak bere ařitxuba jaurti gura dau-ta. Uretan baña ařijak zer egiten daben, ondo dakigu. Uneskak dira orainguan, baña txařagua ixango letike, ur oří ganezka eragitia.

Gaurkuan bake apuřtxu bat be egin da. Azaña jaunaren itzaldijak goguak baretu dauz. Etzan gauza eřaza! España'tařak zaratatsubak dira eurai yagokena zainduteko. Bestienak eztautsoe ardurarik emon Orain-arte beintzat. Eta bere menpian zan eři batek, azkatasun pitin bat eskatutian, Cadiz'ko gude-eresija joten eutson. Abeřtzaletasuna zer dan eztakije.

Baseřitař batzuk egiten dabena, eurek be dakije. Gurasuak olantxe itxi eusten solo au, basetxe au, iñok eskurik ezpegi jaři berton. Baña beste era batera uzta obiak ixango zeunkez, obeto bixi-ixango zintzake, batek-edo-batek esaten ba-dautso, eztau ulertuten.

Bereun urte atzeratuta bixi dira españařak eta atzeren duazanak, bestiak be eurekin eruan gura dabez. Baña atzian edo auřian, gura daben tokijan buaz eurek. Euzkotařak eztaukogu zetan eurekin bidez-bide juan biařik.

Gurasuak emon eutsoen legetxe soluak irautia nai-dabe, ¿ezta? euki begijez, ba. Ezkara juango euzkotařak euren lua artegatuten.

Baña españařak zer diran, ipuin baten-bidez azalduko dautzubet. Sari ikusi dozuz luř-ganian sartuta eguř luziak. Eguř ořeik koipiagaz labanduten dira ta puntera igoten daunari sari bat emoten yako. Olako eguř luze bat eguan Bilbao'ko enparantza baten. Mutiko gastiak pozik ebiltzan sari-bila. Bost ogeřleko emoten eutsoezan lenengo igoten zanari.

Toki aretan euzkotařak ziran gaste geyenak, baña españatařak, prantzetař ta ingelandařak be ba-ziran. Kai ospatsuba da Bilbao, ta alde gustijetako yentiak ikusten dozuz.

Eguř-punteragiño igon gura-eban gaste batek. Ederto asi zan, baña koipiak ezeuson itxi luzaruan. Jausten zan bera. Bařiz igoten asi zanian, an ziran mutil batzuk pařketatik tiraka asi yakozan. Berantza egiten eutson.

—¿Zegatik dagixube ori, ba? itaundu neutsoen.

—¿Ezin igon ixan-gara? ¿bai? ta beste iñok igoterik be eztogu gura.

Mutil areik nonguak ziran itaundutian, españařak zirala jakin neban. Batzuk Burgos'kuak, Bestiak Zamora'kuak.

Lasteř asi zan eguř-goira igoteko asmoz, amasei urte inguruko gaste bat. Ule gořijak eukozan. Ekin eta ekin ezin igon zan. Bere onduan ziran batzuk baře-egiten eutsoen. Ez berantzarik eta ez gorantzarik. Ařen adikidiak zirala zirudijen areik ez eutsen lagunduten. Españařak bera-egiten asi yakozanian gogoř urten ziran lagunaren aldez.

Nonguak ziran itaundutian, ingelandařak irala azaldu eusten. Bakez begiratuten eutsoen adizkidiari.

Geroxe asi zan irugařen bat. Apurka-apurka ebilan, baña gaitz-egiten yakon goraño eltzia. Onetan azpijan ziran batzuk gora jaso eben. Pozez indař-egin eutsen betik eta txaluak joten eutsezan.

—¿Nonguak dira gaste oneik? itaundu neban.

—Oneik France'ko batzuk dira.

Eta ařitu nintzan arein alkařtasuna ikustian. Euren lagunari gustijak indař-egin eutsen sarija lortuteko. Gorantza egin eutsen eta ez españařak legez, berantza. Eztu England'dařak legez zirkiñik egin-barik aře-egin. La teřijak be gaste onein antzekuak dira.

Neuk ezin dodana, eztozu egingo zeuk be, batzuk diñoe. Bestiak ez laguntzarik ez zoztořik eztabe jarten. Azkenak gora igon gura daunari, gora eragiten dautse. Baña España'k semiak eguř-gora igon gura-ixan ebanari egin eutsena, beste gauza gustijetan be egiten dabe.

"Etzara gora igongo. Neu bian nago ta zeu be ementxe lotuko zatut."

Araudi-arazoetan jazo dana, auxe dogu Batzuk eztabe ziñistuten olakorik, baña egijaren aurpegija auxe da. Gai asko daukogu bijařko be.

Azpeiti'ko Euzko-Etxea,ren zabalkundea

Garagařila'ren 12'gn. (J. I.) Azpeitia'ko Euzko-Etxea'ren zabalkundea ospatzen degu. Egun berean Euzko-Etxea, Emakume Abeřtzale-Batza ta Gastetxuen ikuřiñak onestu egingo dira.

Zabalkunde ta ikuřiñ onespen oyek aundikiro ospatu nai genituzke azpeitiař abeřtzaliok eta ořetarako jai aberkoi gain-gañekuak eratzeko asmoetan gabiltza.

Jayen artean ta gařantzitzuena zezen-enparantzan eukiko ditugun itzaldiak izango dira.

Euzko-Alderdi Jeltzale'ko eletari edo izlari sutsu eta bizkořak itza zuzenduko dute.

¡Abeřtzaliak! Zuen eřietan ta berariz inguru eřietan ospatu izan dituzuten jayetan ba-dakizute Azpeitia'ko eřiak nola erantzun izan duan ta ořegatik guk ospatzeko asmoa degun abetara al dezuten geyenok etortzeko ařen eskatzen dizuegu jakiñean gañean saudete gañera zer areriyo tartean bizi geran da. ¡Euzko-abeřtzaliak! Garagařila'ren 12'gn Azpeiti'ratu zaitezte gure Irakasle Arana eta Goiri'tař Sabiñen erakuspenez euren gogo-adimenak argitu gabe dauzkaten azpeitiařak esnatzera, euzko egi bakařa nork aldezten (defenditzen) duan adieraztera edo eřege baten beařik ez dagola erakustera.

¡Euzko-abeřtzaliak! Gertatu Garagařila'ren 12'gn. Azpeitia'ra etortzeko.

Uřengo idazkietan adieraziko ditugu zer jai ta nolakoak eratzen ditugun.

KIROL.

ALDE GUSTIJETAKO IZPARRAK

MADRID

Igazi dan igandian matxiñada gařatzak uri onetan ixan ziran, eta uri-zañak auřetik ondo geřtauta auřkitu ezpa'lira, geyago be gařaztuko zan uřian. Uri-zañak goiz-goxetik egozan uri-zař zabalduta, eta zaratarik txikijenera belařijak zořoztuta zaratarijak ixilduteko geřtauta.

"Plaza del Angel" enparantzan jazorikua, ara zelan ixan zan:

Enparantza aretan uri-zain batzuk bertan ziran notiñak esku-arakatuten asi ziran, eta onetan ebixala, andik iges-egiteko igituten asi ziran batzubei, ¡geldi oř! didař egin eutsen.

Gerona abixeneko uri-zaña eta Melendez eritxona, iges-egin gura ixan ebenakanuntz egin ziran; baña areitako batek egin eutsan bultzadiaz Gerona luřera jausi zan, eta luřian zala, luřeratu ebana bera daunbadaka asi jakon, eta zaurittu egin eban.

Laguna zauritúta ikusi ebanian, Melendez zauritzalai daunbadaka asi zan, eta euretaiko bat zauritu eban.

Gerona zauritúba z...uri-Etxeratu ebenian, suizkiluz egindako iru zauri aurkitu eutsezan; bat bijotz onduan, ta urteyerako zulo barik; beste bat, eperdi-mamiñetik eta irugařena bekokijan.

Buru-azuřa apuřtuta daun ala ez ondiño eztakije, baña gixagaxo aundija txařto be txařto aurkitzen da.

Melendez bere laguna be zaurituta auřkitzen da, baña onen zaurijak gařantzi gitxikuak dira.

Zauritzalak iges-egin eben.

Uri-zañen eta matxiñadalarijen artian egin ziran daunbadak amabi-inguru ixango ziran.

Geruago Lavapies txaidetik Mateo Endika ertzañen sargentua semetxu bat eskutik ebala joyala ezaunge batzuk daunbada batzuk jaurti eutsezan, eta zaurituta imiñi. Soroski-Etxeratu ebenian, ango osarijak, il-zorijan aurkitzen zala ikusi eben, eta andik lasteř il zan.

Lavapies'en egin ixan ziran daunbadak zirala-bide, euren etxeko txeigora urten ziran senař-emaztiak be zaurittu egin ebezan. Emaztiaren zaurija aunditxuba da. Senařarena ez ain aundija, baña au be naiko txarto dago.

BILBAO

Bizkai'ko matxinada-zaliak zarata andijak egin ebezan larunbat...n, igandian jazoko zirala gauza ařigařijak-eta, baña ezer ezta jazo. Arana-Goiri-txaidian subaga batek taunbada andija egin eban tximist-tantai bat luřeraturik.

Barakaldo'n be subaga batzuk ots-egin eben.

Eřtzañak txaidez-txaide ibili ziran, baña alpeřik. Matxinadea egiteko zaletasunik eztaukoe-edo.

VIENA

Insbruck, Lunz eta Kufsteit urijetan talketa gořijak jazo dira matxinada-zalien artian. Eřitegi baten asi ziran buřakadeak eta txaideragiño bařeyatu ziran. Tirol aldeko jauřlarijak debakau dabez batzař gustijak. Hithler'ren jařatzaliai eztautsoe gauzarik bayeztuten.

BERLIN

Rhenania inguruban zalaparta andijak ixan dira. Wupperdat, Dortmund eta Colonia urijetan eřtzañak eta orokařak talketa bixijak ixan dabez. Erialketa asko jazo da.

NABAŘA

Nabařa'n atxilotu dabe Donostia'tik igeska aldendu zan Tuero orokařa. Uriko gudari-ařtian Rossoya'tařen aldezko zabalkundia egiteko asmoetan juana zan. Bijuřkeri onetan alde ixan diran gustijen ixenak jakin dabez agintarijak.

ETXE TA LURR SALDU-EROSTIA
Etxien-gain diru arrtu-emotia
INTXAURRAGA'tarr P.
Bilbao-Bailen, 3-2'g. 11.685 urrutitik

GAZI-GAZAK

IGANDEKO GORA-BERAK.—Eguraldijari dagokijon aldetik, igandeko eguna ez uř ta ez salda ixán zala esan dagigun.

Ez eguzkirik eta ez euririk.

Emen juan dan astian ibili ziran matxiñada zaratak-ezer ezian geratu zirala-be esan biarko.

Euzko-Gastedijak Andoni Deuna'ren ertxadonan gatz matxiñadan urkatu ebezan abeřtzalien gogo-aldez osatu eban jaupara zteaza edeřa eldu zan.

Gazteiz'era ostikoketa ikusten juan zirnak-be naikua ixan ziran.

Baña benetan oztetza aundija eldu zan tokija Zabalbide'ko pelota lekuba ixan zan. ¡Alako betekadarik! Eta ezta ařitzeko, Batzokijen txapelketako pelotaririk gorenguak ziran jokalar...-ta.

Lenengo, Markina ta Lekeitio'k jokatu eben.

Lekeitio'tařak, Galarta'ko bikoti gogořari irabazita egozan ezkero, uste zan, Markina'tařak eřez aspiratubak ixango zirala; baña "Txirget,,'en mutilak edo Markiña'tařok asi yakozan bastař gustiok apurtu biařean, jo-ta ebagi denganiñokerizko joko itzelaz, ta nik eztakit Lekeitio'tařok bilduřtu edo zer gertau jaken, baña Joseba eta Jon Markina'tař kementsubak geruago ta gogořago ekiten eutsen da, or nun iñok uste ezeban jokaldija irabasten dautsuben, 22'ra eldubaz Lekeitio'kuak amaika besterik ezeukezanian.

Zu "Txirget" ¿zer ařayo emoten dautsozube ořei zure mutiloi? ¡Areik atara juen egur-otsa! Zorijonak mutilak. Bigarrena Aulestia-Portugalete'k jokatu eben.

Emen-be esan-geinke Aulestia'k irabaziko ebala uste zala alde gustijetan, baña itxuraz igandian, ustiak okeř urtetzeko eguna ixan-edo-ta, Portugalete'k eřez irabazi eutson Aulestia'ri. Oneik 9 baño ezebezan egin.

Txapelketa au berotubaz doyaku. ¿Nor txapeldun?

ZALDIBAR'KO "ASKORGAIN,,'I.—"Mendigoxale Bilbotařa,,'ko mořozko batzubek agindu yaustek esateko iri, datořan larunbata gabian elduko dirala Zaidibar'era oñaz. Eta atseden apur-bat artuaz egon aldi bat egiteko, aterpe batera, zapai batera edo lagundu biař dautsekala ta itxadoteko lotara juan baga.

Mendigoxale onein asmua dok goxaldian urten eta Ermua'ko jai aberkoyen asiker ako goiz-eresija eurak jotia, eta gero mendigoxalien eldukeria eurak dakijen lez eraldutia. ¿Lagunduko dautsek eztok?

I, "Ermu-Zale", oneik mořozkuok artuko dozubez ondo, ¿entzun?

Geu-be igandian mordo bat or ixango gařuk (J. L.).

ABELETXE.

aundi au. Bizkaya'n (negargařija da gero au) ementxe uri onetantxe bakařik egin oi-da ibildeuna, eta berton etzan amaitu, ba eurija asi zan eta ertxadonera joyala. Eskařeko txadonan sařtu ta bertan emon yakon amayarea. Txadon gustijetan egon ziran elizkixun edeřak ařatsaldian.

LASTEŘ DOGU.—Bai, irakuřle lasteř be lasteř dogu Bagila'ren 5'kua. Eta egun ořetan bai-dakixu jai aundijak daukoguzala markiñařok geure Batzoki ta E. A.-B.'ren askundiak dirala-ta. Alde gustijetatik batez bere Gipuzkoa ta Bizkaya'tik izpař pozkařijak daukoguz egun ortan geure artera zenbatu ala baño geyago datořtzala eři bakotxetik-eta. Bai etoři ¡etoři bai! eta poz-pozik juango zarie egun zorijontsu bat igarota geure artian. Emakume ta Batzoki'ko batxordiok gogoz diardue lanian gauzak gertetan, batak au ta bestiak a. Lenengo egunian niñuan egitarabaren ga...ra ainbat gauza geyago gertetan diardube Ondařoa'ko erespatza Lekeitio'ko ezpatadantzari ta gorularijak... eta abař eta abař.

Atzo egon nintzan emengo batzokiko pelotari bategaz, ta egun ořetako pelotakua edeřenetariko bat ixango dala ...ba pelotiari ¡keya! atara-eragingo ... esan eustan. Guziok gogorak ... lestia'ko mutil azkařok be eztira ... pelota-zaliok aldi on bat igaroko ... lota-joko bitařtian. Ez atzeratu ... egun ořetan eurija ba'da be ba Markiña'n aterpe onak doguz, Jauna'ri eskerrak, gustijok bustijaren bilduř barik ...

Bagila'ren 5'kan, ¡gustijok Markiña'ra!

...

Uařa. — Markiñara juateko ...ba-dago onen. Mendigoxaliak mendi... di juango ei-yatzubez. Biteri izlari ... engua be ortxe ixango yatzube, ... gexorik-edo dabil baña, Markiña'n ... leikela-ta.

Egun ořetan Portugalete'ko pelota ... n itzalki bat egin biař dodalako ... ...mal andija daukot, eři ořetan be abeřtzaliak atera biař-diralako ... eta biak joko doguz emetik yentia ... teko.—L.

ERRIJETATIK

MAÑARIA

GORPUZTI.—Egun andi onetan, goxian Jaunařtze ugarijak egin ziran. Saspiretako mezan, Bařenetxea'tař Polentzi jaunak, egunaren anditasuna ederto baten azaldu euskun. Eta amařetako meza nagosi-ostian, ibildeuna, Kistoren Soin deun - deunaren aintzaz, eleizpian egin zan. ¡Aintza Bera'ri!

ERIJOTZA.—Iloren 20'gn. Nabařa'ko Monteagudo eřijan iltzan, emeko semia ixan dan Ořtuostetař Kařla (Karlos) lekaide austindařa, 62 urtedun zala. Izpař onegaz eřitařok, tamala ařtu dogu. Jaunak zeruban euki begi "Karla prale" zintzo ta onbidetsubaren gogua.

Sendikuai, atsekabian laguntzen dautsogu, batez-be, bere loba ta geure aizkidiak diran Bitor, Gotzone, Pelise ta Kepe'ri.

JUAN - ETOŘIJAK. — Egubaztenean guřtau genduzan emen Urkiola'ra ezkontzen joyazala-ta, R. Ertzila'tař Geřgori ta Untzalu'tař Margarite "Amagoya" geure aizkide onak. Bařa eurokaz batera aguřtau genduzan, Ařetio'tař Gixane, Durango'ko E. A. B.'ko lendakari agurgařija, Oleaga'tař Josebe, Garamendi'tař Kandida ta R. Ertzilatař Jon, abeřtzale zintzuak. Danok aguřtau genduzan pozik. Eta "Amagoya" ta "Gogořa,,'ri euren bixi-modu bařijan gustitariko zorijon ugarijak, bijotzez opa dautsoguz.

—Igandian egon ziran emen Garamendi'tař Jon, Zořakin'tař Inakitxu ta Ariznabařeta'tař Josebatxu.

—Areatza (Villaro)'tik etoři zan Elexpuru'tař Bingen mutil gastia.

MENDIGOXALIAK.—Igandian, eguraldi txařa ixan zanařen, Durango'ko mendigoxale abeřtzaliak. Baltzola'rantza bizkor-bizkor juan ziran. Bařa beste mendizale batzuk be, Urkiola'rantza adoretsu juan ziran.

ABERASTUTEKO BIDIAN. — Astelenian, emeko mořoskotxu bi, igandian basuan atrapau eben axeri txiki bat makila puntan ebela, etxerik-etxe ibili ziran. (Eři ontan ekanduba da-ta.) Ta etxerik geyenetan eskupeko politak ařtu ebezan; gustira, lau ogeřleko inguru Ta artzain-batzako lendakarijak be, zortzi ogerlekogaz sartuko ei-dituz.

Ořa, egun baten pilatzeko ¡dirutza galanta! ¡Amabi ageřleko! Egunian bat edo bi atrapau ezkero, aberastuteko "negosijo" edeřagorik eři ontan nekez. Bařiro be "zepuak" oř-emen ipini biařko dira.

BEDERATZI-UŘENA.—Andoni deunaren bederatziuřena, emeko Kurutze-Deuna elexatxuban larunbatian, datořen ilaren 4'gn asiko da. Ta jente asko juango dan ust'a dago. Deun begiko ořegaz, artu-emona eukitia, danori komeni yaku-ta.

MAÑARIKO.

MARKINA

EGURALDIJA.—Baña ¿noiz amaituko dala aurtengo neguba? ¡Onako euri ta txingořa! ¿Zer da au? Agiñak otzaz alkař kax-kax-kax joten gabiltz oraindik, eta ořila'n azkenetan gagoz. Onakorik ikusteko be gero. Baña... nagon ixilik lenago be ořila aurtenguaren antzekua iñoz ixan biař-ixan dau-ta, ba antziñako esakun zařak onan diño: "Ořila erdija otzak ila"

OŘILA'KO LOREAK.—Txadonak betebeterik notiñez egoten dira goiz ta iluntzi Ořila'ko lorak egiten diran bitartian. Gaxian ertxadona neskatila talde edeřa juaten da, ta abesti eztitsubak abestuten dautzez Ama Neskutza'ri.

CORPUS CHRISTI.—Igaro yaku egun

El día en Bilbao

La jornada en las Corporaciones.-Los conciertos del domingo en el Arenal se dieron sin extorsiones.-Otras noticias

El absurdo

No puede tolerarse en realidad por más tiempo lo que venía ocurriendo en el paseo del Arenal. Nos parecen muy bien las medidas adoptadas por el alcalde contra los perturbadores musicales. Afortunadamente, el domingo se impuso una rectificación de conducta por parte de los perturbadores, que no fueron a los conciertos o se estuvieron calladitos para que todos pudieran oír bien.

Porque no se trataba solamente de que no se dejaba oír bien a los que iban a los conciertos con el decidido propósito de no desperdiciar una nota, ni siquiera un compás de espera. Lo que venía ocurriendo tenía una mayor trascendencia. Se malgastaba una cantidad de melodías que al Ayuntamiento y, por derivación, al vecindario, le cuestan sus buenas pesetas. Y era absurdo que la inconsciencia de unos cuantos hicieran estéril esta inversión. Resultaba un absurdo, un verdadero absurdo. Sólo se oían los propios músicos, y esto, francamente, no justificaba el sostenimiento de los conciertos, por muy respetable que nos parezca el regocijo de los profesores.

Por aquel camino era preferible ir a la formación de una Banda que no tocara; que se limitara a subir al kiosco y a empuñar los instrumentos. Incluso se podía asegurar que se daban conciertos que no se oían, porque oídos a medias es tanto como no oírlos. Es decir, que se daban conciertos que no se daban. Planteada así la cosa es como se ve toda la gravedad que encerraba la conducta de los que esterilizaban las audiciones. Resultaba que el Ayuntamiento estaba invirtiendo un buen puñado de pesetas en unos conciertos musicales que, en sus consecuencias, no existían. Poco a poco se iba a dotarla de unos instrumentos de cartón, parecidos a los instrumentos de verdad. Con ello se hubiera ganado en baratura y en eficacia, en suma

¿BUSCA USTED
¿Muebles económicos?
SANTA MARIA, 4. -- BILBAO.
Fariña y Vicente

AGUAS DE SOBRON Y SOPORTILLA
El Hotel BLANCO estará abierto el primero de Junio

El RECONSTITUYENTE Y APERITIVO por excelencia es el acreditado VINO ONA, del doctor Arístegui. Grandes Premios y Diplomas en varias exposiones extranjeras.

De las Corporaciones

En la Diputación no hubo ayer apenas noticias. La jornada, en su aspecto informativo, se redujo a unas cuantas visitas.

Se informó a los periodistas de que el plazo para la obtención voluntaria de cédulas comenzará el primero de junio, desde las ocho de la mañana a la una y media de la tarde, como en años anteriores.

—En el Ayuntamiento tampoco hubo novedades de importancia. El alcalde se mostró ante los periodistas muy satisfecho por lo bien acogidas que habían sido sus medidas para evitar que durante los conciertos de la Banda municipal en el paseo del Arenal se produzcan, en lo que pudiéramos llamar el área de audición, ruidos extemporáneos que impidan oír bien a los músicos. Todo el mundo acató las órdenes citadas de buen grado y el público se abstuvo de pasear por la parte posterior del kiosco. Los dos conciertos que dió la Banda el domingo pudieron ser escuchados cómodamente, sin las extorsiones que habían originado la protesta de los oyentes conscientes.

Dijo también el alcalde que va a dar órdenes terminantes a la Guardia municipal para que meta en cintura con toda energía a todos los individuos procaces que andan sueltos por las calles molestando a las mujeres, aun cuando van acompañadas, especialmente en los paseos. Se va a poner al habla con el gobernador civil para ... si puede lograrse que los agentes de ... autoridad contribuyan a esta campaña ... eliminación de los ineducados en la vía pública, haciéndoles comprender por ... enérgicas y de autoridad que su conducta no es cosa que pueda admitirse en pueblos civilizados.

Un señor sacerdote visitó al alcalde para entregarle 800 pesetas bajo secreto de confesión.

CARRERA DE COMERCIO
CONTABILIDAD
ACADEMIA MACUA
Santa María, 1. Bilbao. Tl. 16.787.

Análisis de orina
Esputos. Leche. FARMACIA ARISTEGUI
Alameda de Mazarredo, 9. Teléfono 17.355

Ecos de Sociedad

VIAJES

Regresaron de Barcelona don Ramón ... varez del Tomelloso y don Enrique ...

—De Sevilla, don Andrés de Ibarra ... don José María de Zabala.

—De Gazteiz, don Juan Díaz de ...

—De Madrid, don Jaime Prat y don Jesús y don Juan de Uruñuela.

—Fué a Madrid don Manuel Castella...

—A Santander, don Martín de Ame...

—A Córdoba, don Ramón de Juan...

UN BELLO RASGO

El de los prestigiosos músicos bilbaínos don Luis Antón y don Antonio Castrillo, que el domingo, y en el Sanatorio de Santa Marina de Ganguren obsequiaron a los enfermos con un brillante concierto musical.

Si el calor de los aplausos de los enfermos de Santa Marina al final de las ... interpretadas no hubiese patentizado ... mente el agradecimiento de éstos a tan ... nente músicos por su rasgo bello ... consolador, sirvieran estas líneas del ... timiento que alberga en los corazones de ... asilados en los pabellones "Briñas".

Y a don Luis Antón y don Antonio Castrillo, nuestra cordial enhorabuena ... su gesto amable, lleno de ranci... llerosa.

NATALICIO

Dió a luz con toda felicidad un precioso niño doña Mercedes de Urkiza, esposa de nuestro queridísimo amigo el buen ... ta don Cipriano de Zenitagoya.

El neófito fué bautizado en la ... de Nuestra Señora de Begoña, imponiéndosele los nombres euzkéricos de Ibon ...

Al joven matrimonio Urkiza-Zenitagoya en la fecha feliz de este natalicio, ... cordial y sincera enhorabuena.

BODA

Ayer, lunes, se celebró en la basílica de Begoña el enlace matrimonial de la ... señorita Celia Alonso con el distinguido joven don José Zabala Zamakona.

Actuaron de padrinos don Eduardo ... Zabala, padre del novio, y la señora ... de don Baldomero Alonso, madre de la novia.

Después de la ceremonia los invitados fueron obsequiados en el Hotel Torrontegi con una espléndida comida.

La feliz pareja salió en viaje de novios para el extranjero.

Academia de Corte
Si queréis aprender el corte pronto y bien, en la Academia de María Luisa de Uriarte. Cursos especiales para modistas, de siete a diez
SOMBRERERIA, 12. CUARTO

Talleres de lamiaco
LAS ARENAS. T. 97.805.
Construcción y reparación de maquinaria. Fresado de engranajes cónicos, rectos y helicoidales; construcción de piezas para automóviles. Fundición de hierros y metales

Garage Nicasio
PLAZA DE ECHANIZ, 3. TEL. 17...
Taller de reparaciones y accesorios. Alquiler de automóviles para bodas, bautizos, etcétera, a precios reducidos.

Chalet en Neguri
Alquilo o vendo; espacioso jardín. Razón, TENDERIA, 48. JOYERIA.

ARANA
SUCESOR DE SEVILLA
SEGUROS
Banco de España, 3, 2.º T. 11.805

IBARRETA
Sastrería-Novedades
TRINCHERAS, GABARDINAS, GABANES CUERO
H. de Amézaga, 20. Teléfono 13.699

Sanatorio San Esteban
OYARZUN (A 10 KMS. DE SAN SEBASTIAN)
Dres. Vidarte, Larrea y Usabiaga.
Tratamientos modernos de las enfermedades nerviosas, histerismo, neurastenia, psiconeurosis, intoxicaciones morfina, cocaína, alcohol.
Enfermos de régimen. Convalecientes.
Pensiones. de 15 a 40 pesetas.

HOTEL-RESTAURANT EUSKALDUNA
SERVICIO A LA CARTA
F. lebarrieta, 12 2.º Telf. 12.312
BILBAO

Barriola'tar I. M.
Gaixotegi'ko sendagillea urdail - gibel - este.
GARIBAI, 20, 2'g. — DONOSTIA.

Uribe'ren jostolea
Alkondara eta enparauko gixon-janzkiyak.
Loyola-kalea'n 3'garren zen bakiyan
DONOSTIA'N.

ERNANDORENA
ORTZLARI (DENTISTA)
PRIM-KALEAN, 31, 2.º — DONOSTIA.